

Sancho el Sabro

A.T.V.
1930



XABIERTAR PRANZISKO DEUNAREN BIZITZA



KAROLINEN UNIVERSITÄT ZÜRICH



Xabier'tar Pranzisko Deuna *

N. - 5568

R. - 1861

XABIER'TAR PRANZISKO DEUNAREN

BIZITZ LABURĀ

J. L. Schurhammer'taf Jorke'k

alemanez egiña

eta

Kepler jaunaren

24 irudiz

apaindua

Oña'n Jakintz-ikasle Jesulagunak euskeratu dute

Jesus'en Biotzaren Deya'renean



EL MENSAJERO DEL CORAZÓN DE JESÚS

Apartado 73

BILBAO

IMPRIMI POTEST:
Gabriel Vilallonga, S. J.
PRAEP. PROV. CAST.

NIHIL OBSTAT:
Michaël Aizpuru, S. J.

IMPRIMATUR:
Fr. Zacharias, Episcopus Victoriensis.
20 JAN. 1925.

EUSKALDUNAI

Liburutxu onen egilea gure Xabier Deunaren maitalerik zintzo eta gartsuetakoa da. Berez Alemana, eta buruz azkara ta langile bikaina.

Jesus'en Lagundiko bere Nagusien aginduz, beste egiteko guziak alde batera utzi ta, Napañoako semerik ospetsuenaren bizitza ezagutzen eta ezagutu erazitzen dabil. Au baño bizitza luzeagoa ere idatzirik dauka, eta oraindik beste luzego bat idazten ari da; baño orain atera degun au, aizeak batetik bestera eramaten dituan oñiak bezela, alde ta bazter guzietan sartu dedin egiña dala, esaten digu. Biurtu dala oñetarako Europa'n diran izkuntzarik geienetara ez ezik, Indieta Txina'ko batzuetara ere; baño, ¡Aita Prantzizko Xabier beraren izkerara ez dala oraindik biurtu! Euskeratu dezagula, añen, len bait len.

Itz auek entzun orduko asi ziran Bizitza euskerara biurtzen Oña'n, Xabier Deuna Ikastetxeko Zaindari dutela, Jakintza ikasten ari diran Jesuita gazteak. Ayena da bada, euskerazko idaztitxo au.

*Akatsik badu, lana leundu beárean zakartu egin de-
gunena da erua; arkituko diran gauz on guztiak egi-
learenak eta gure anai gazte aienak dira.*

J. AGIRÉ, S. J.



ARKIBIDEA

	<u>Oñaldean</u>
1. Txikia zala (1512).	11
2. Bide zuzenera (1533)	13
3. Ezkeintzen natzaio Jaunari (1534)	15
4. Bidez-bide (1536)	17
5. Indietara bialdua (1540)	19
6. Inditafak zeruratzera (1541).	21
7. Maomataf'en artean (1542)	23
8. Kristau ikasbidea irakasten (1542).	25
9. Parabatafak Jaunaganatzen (1543)	27
10. Jainko gezufezkoen aurka (1543)	29
11. Kristau egiten (1544)	31
12. Jokalaria irabazten (1545)	33
13. Gau osoak otoizt egiten (1545).	35
14. Begiratu ta ikasi (1546)	37
15. Itxasoan galdu zan Gurutza (1546)	39
16. Odolzaleen artean (1546)	41
17. Ternate'ko itxas ertza (1546)	43
18. «Moro» ugariteko lanbideak (1546).	45
19. Etsayen ondamena (1547)	47
20. Japon'dafak irakasten (1549)	49
21. Begira zazute argia (1550)	51
22. Meako aldera (1551)	53
23. Bungo'ko Jaunarenean (1551)	55
24. Eriotza (1552)	57



Txikia zala

1. TXIKIA ZALA

Lufeko zirtzilkeri batzuk irabazteagatik or dabiltz bufukan mundutafak, gu ordea gorago-koen bila gabiltz. *(1 Cor. 9, 25)*

NAPAŖOKO txoko polit batean, zuzen eta eder bere buru gogofa jasotzen du gaztelu oroigarri batek; orain laregun urte dirala, antxe jayo zan Jofailaran 17'an, 1506-gaŕen urtean, Xabier Deuna, Japon ta Inditafen Mixiolari ospetsua.

Eta bertantxe, bere ama Azpilkueta'r Maria'k erakutsi ta, gure euskera gozoan «Aita gurea», «Agur María» ta beste otoitzak ikasi zitun.

Aita maite Jaso'tar Joane, sei urtekoa zala, il zitzayon. Andik laister bere anai Mikel eta Joane gudara joan ziran, beren efi eta Jaunaren alde bufuka gogofari ekitera. Izan ere, Jaungoikoari eta Eliz Ama Deunari zor zayen gorapena eman da gero, ez du gizon dan gizonak bere efi ta bere Jaunaren alde ibiltzea baño aintza garayagorik nai izan bear. Xabiertxoren bi anaiak lenbizi Azpilkueta'fen gaztelu etxean (Baztanen), gero Azpilkueta onduan, Amayuf'ko gazteluan, eta azkenik Ondafibin, geiago ezin arte-raño, gudan aritu ziran.

Anai txikia ere gudazale ikusi nai izan zuten bere anai zaŕenak eta egiñalak egiñ zituzten ofetarako, baña dana alpeŕik. Berak beste txalo ta lore edeŕagoak irabazi nai zitun gudakoak baño; gizon jakintsu ta ospetsua izanaz ondasun eta aberaski asko bereganatuko litukela ta, beste bide bat artu zun.

Emeretzi urte bakaŕik zitunean ama laztana ta anai maiteak laga ta, ikasle gogoangafia izateko asmoz Paris'ko lkastetxe nagusi aipatura abiatu zan.



Bide zuzenera

2. BIDE ZUZENERA

Zer zayo gizonari ludi (mundu) guzia irabaztea, azkenean gogoa (anima) ondatzen badu?

(*Math. 16, 26.*)

GAZTE baten gogoa apaindutzeko guztizko edergaŕiak dira biotz-garbitasuna eta Jaungoikoaren bilduŕa. Bi apaingari oek zeramazkian berekin gure Xabier'ek Euskaleŕitik Paris'era juan zanean; baŕno irten zitzaizkion bidera uri aundi artan bi etsai; suge zitalak baŕno galgaŕiago diran bi etsai: Jainkoaren bildurgabeko Irakasle bat, eta lagun lasai nazkagaŕiak.

Irakasle lizuna, Jaunari eskeŕak, kalte aundirik egin baŕno len il zan; eta bere orde z etoŕi zitzaion Xabier'eri gela lagun izatera, gazte on eta biotzez garbi garbi bat: Fabro'tar Kepa, Saboya'taŕa. Onek on aundia egin zion gure ikasle gazteari.

Beste sinistegabeko lagun batzuk bazeuzkan oraindik, eta gogor ari ziran gure Napaŕa okeŕera eramaten; baŕno erori baŕno len bialdu zion Jaunak aingeru zaitzaŕe bat: Iŕigo Loyola'taŕa; euskalduna bera bezela, Azpeitiko semea. Lenago gudari bikaiŕa Iruŕa'n izandakoa, baŕna orain luŕeko ezerezkeriak utzi ta, oso osorik Jaungoikoa-gana biurtua.

Bi euskaldunak berialaxe alkaŕen adiskide egin ziran. Euskeraz ere askotan jardungo zuten, noski. Irabazi zion Loyola'taŕak Prantzisko'ri biotza; asi zan Jaunaganatzen; baŕna Xabier gogor zegon lenengotik eta etzien luŕeko auditasunei agurik egin nai.

Gogora ekaŕi eta gogoan erabili erazo zion Inazio'k Jesus gure Jaunaren esan ura: «Zer irabazten du gizonak ludi guzia irabazi ta ere, azkenean bere burua ondatzen badu?»

Erabili erabili az sartu zitzaion gogo baŕura Xabier'eri Kristo'ren esan au, eta luŕeko zirtzilkeriak alde batera utzirik, Jaunaren deiari zintzo jafaitu zion.



R. S. K. 1910

Ezkeintzen natzaio Jaunari

3. EZKEINTZEN NATZAIO JAUNARI

Guziak utzita, Berari Jafaitu zioten. (*Luz, 5, 11*).

EGUN baten aurkeztu zitzaion Jesus'i gazte bat, eta esan zion: «Jauna, gaztetandik Jaunaren aginduak bete ditut; zer gañera egin bear det?» Jesus'ek erantzun zion esanaz: «Osoro ona izan nai badezu, ara, zoatz, dezuna saldu, beartsuei eman, eta atoz, jafaikidazu».

Gazte ura ordea ilundu ta naigabetuta itzuli egin emen zan. Etzun ofelakorik egin gure Xabier'ek. Biotza guztiz Jaunaganaturik eskeintzak egin zituān Jasokunde jai egunean (Dagonilako Andra Mari egunean, 1534). Begira nola. 1534 gañen Jasokunde jai egunerako, Abuztuaren 15'erako, Jaunarentzat irabazirik zeuzkan Iñigo Loyola' tañak Xabier eta beste bost lagun: Fabro, Bobadiā, Lainez, Salmeron eta Rodriguez.

Paris ondoan dagon Monmartre'ko elizatxo batean bildu ziran zazpirak. Jauna artu aurfetik (Meza ematen zuna Fabro Zorionduna zan), Kristo gure efegea eskue-tan zeukala bere lagunetara itzuli zan Meza-emañea eta banaka banaka beren eskeintza Jesukristo efegeari egin zioten esanaz: landeñak (pobreak), eta garbiak izango ziralā; ta gañera beren ikastaldia bukatutakoan Jerusalen'era joango ziralā. Baño urte batez itxoiñ da, aruiz joateko itxazontzirik ez bazuten arkitzen, Eñomako Aita Santuaren menpean jañiko ziralā.

Eskeintz abek sendotzeko pozez eta gozoz Jauna artu zuten. Jesus'en Lagundia bizitzen asi zan.



R. S. Fisher

Bidez bide

4. BIDEZ BIDE

Jañaitzen didana, ez dabil ilunpean. (*Joan. 8, 12.*)

ESKEINTZAK egin zituztenetik bi urte igaro ta, Xabier eta bere lagunak (beste iru ere berenganatu ziran) eskeñitako ibilketa egiten asi ziran.

Benazia'n aien zai zegon Iñaki, antxe Jerusalem'erako itxasontzia artu bear zuten eta.

Beste adiskide beñiak bezela oñez Paris'tik Benezi'ra etofñi zan gure Xabier.

Paris'ko ikasle gazteak bezela jantziatz, eramán zituzten gauz guztiak abetxek izan ziran: Idazti deunak (Biblia) eta apaizen liburua zoñoan eta eñosarioa lepotik zintzilika.

Alemaní ta Suiza igaro beañá izan zuten, eta bide ontan sinismen egiazkoa galdu zuten eñiak ere arkitu zituzten. Eta Aldareko Jauna, bere Ama txit garbia ta Eleiz Ama Dzunaren amofu bizia gizaseme abek zutela jakin añen, agirian eta lotsa gabe gure Jauna eta Ama garbiaren zaletasuna ta gure Eleiz Ama deunagaz zuten leia danen afean agertu nai izan zuten.

Zazpi astetan ibilketa luze ura egin zuten: gizatxañez inguratutako eñi menditsuak arkitu zituzten bidean eta auez gañera eluñez estalia luña.

Bide ura oñen latza izan añen atseginez zijoazten Kristo'rekin zebiltzalako.

Benezia'ra eldu ziranéan Turkia ta Benezia gudan zebiltzan. Oñegatik Jerusalem'erako itxasontzirik etzan irtezen, eta eskeñi bezela, Aita Santu menpean beren buruak ipintzera Eñoma'runtz abiatu ziran.



R. E. Knapton

Indietara bialdua

5. INDIETARA BIALDUA

Zu zera Kepa, eta ari onen gañean nere Eliza
egingo det. *(Math. 16-18).*

JESU-KRISTO'K il baño lenago bere Apostoluekin egin zun azkenengo apari artan ogia ta ardua bere soiñ eta odolean aldatzeko almen afigaia eman zien; Pazko egunean bere izenean oben edo pekatu guztiak barkatzeko eskubidea ere bai.

¡Aunditasun ikusgaia benetan apaizentzat; eta gizontzat esker on guzien iturri gozoena! Oregatik Xabier'ek gizonen gogoak edo animak zeruratzeko apaiz izan nai zun, eta apaiz izateko alegiak egin zitun. Nai zuana iritxi zun azkenean, eta luzaro biotza gertu ondoren, lenbiziko meza eman zun. ¡A ze poza!

Bere aurpegian ikusten zan gogo aundi aien berotasuna. Eta bere bizitz guztia lan eta nekez Jaungoikoari ordaindu nai ziola ederki agertu zun Indietara bere Jaunarentzat ainbeste sinistegabeko gizagajoak irabaztera janzanean.

Portugal'eko eregeak inditafai onbidea erakusteko Doipuru edo aita Santuari mixiolari batzuek eskatu zizkion. Bereala Doipuru Deunak Inazio Deunari bere lagun batzuek bialtzeko esan zion, eta onek bere Lagunditik bi autatu ta Portugal'era bialdu zitun; abetako bat gure Pranzizko Deuna zan.

Pozez artu zun Xabier'ek befi on ura, eta Jesukristo'ren Ordezkariaren auean belaunikatuta, bera autatu zualako esker bero beroak egiñik, onespena (bendizioa) apalki eskatzen dio; gero Inazio ta bere lagun guztiak agurkatu ta, Jaungoikoarentzat beste efi asko irabazteko asmoz Efoma'ko uri nagusitik irten zan.



Inditařak zeruratzera

6. INDITAÑAK ZERURATZERA

Zoazte, ta irakatsi efi guztiai. (*Math. 28, 19.*)

JAUGOIKOAREN bidaldu (apostolu) deunak sinisgabeko giza-xoen gogoak zeruratu nai ba zitun, zeuzkan gauz guztiei: bere sendi (pamili), lagun eta eñiari agur egin bear zien.

¡Zoriona Jaugoikoari apaiz izateko seme bat eskeintzen diona! baño askoz zoriontsuagoa bene benetan mixioetarako ematen diona!

Indietara juan bear zuten belgundariak (mixio'ariak) Lisboa'tik irtetzen ziran urte aietan. Uri eder edeñaren inguruan Ama guztiz garbi maitearen Eleiz txiki bat arkitzen zan. An, beñogei urte lenago, itxasoko Izar edeñari bere laguntza eskatu zion Basko'tar Gama'k India'ko luñak agertzera zijoanean; antxe bertan otoitz egin zun Goa, Malaka ta Ormuz'en menperatzele izugarñi Alburkerke'k Maoma'tañai Inditar itxas guztien jabetasuna kentzera zijoanean. Eta Eleizatxo artan bertan Xabier'ek Maria Deunari bere bizitz guztiko lan, arazo eta emaitzak eskeñi zizkion.

Elizatik ondartzara zijoaztenean Xabier'ek azkeneko itzaldia bere lagunei egin zien: «On onak, Kristau zintzoak beti izan zaitezte, eta Inditar guztiak zuen bizitz garbi eta eñugabez onbideratu itzatzute».

Irtetzeko ordua eldu da; itxasontziko aingurak altxatzen dira, eta berealaxe Europa'ko luña Xabier'entzat betiko izkutatuko da...

¡Zoaz pozik Xabier beste lur batera; zoaz pozik Indietara, zure ametsetako luña da eta! ¡Ango eñukañiak zure zai daude; ta antxe irabazi eragingo dizu Jaungoikoak izenik argien argienetakoa!



R. S. Golden

Maomatafen artean

7. MAOMATAÑEN ARTEAN


Gezuzeko Igarleengandik zuen buruak gorde.
(Mat. 7-15)

APRIKA'KO ertzean dagon Melinda'n itxasontzi danak gelditu ziran. Gama'tar Basko'k jaso erazi zun añizko zutabea ibai ondoan jaikitzen zan, galanta, eta zutabearen gain gañean gure Gurutze deuna.

Xabier'ek Maomatañen artean jasota ikusi zun Guruzeari agur gozo bat bialdu zion poz pozik kristau ezaugaritxo ura an beñepein goratuta zegolako.

Maoma'tar amofatuak izan ziran Melinda'ko biztanleak; baña garai artan atzeraka zebiltzen beren irakas-kizunak. «Amazazpi eliz ditugu guk eñi ontan, eta iñor ez da elizetara joaten», zion eñi artako Maomatañen nagusi batek gure Xabier'eri. «Oñen gutxi zergatik ete dijoazte?» «Galdera oni erantzutea oso eñez da», erantzun zion Xabier'ek. «Jaungoiko gure Jauna zuen artean iñork goratzen ez dulako, eta iñork bere mofoi zintzo izan nai ez dulako». Baña orain zuen oitura ta ikazkisunak alde batera uzten asi da, eta bere lege deunera eramango zaituzte. Au erantzun da; bereala Maoma'ren ikasbidea gezuzekoa zala adirazi zion Xabier'ek; baña Maoma'tar gizajo ura bere bide okeñean geratu zan.

Kristauen etsai gogoñenak Maomatañak beti izan oi dira; baño batez ere Xabier eta bere anaienak. Eta gofoto au zergatik ete dute beren biotzetan? Kristo gure Jauna eta Maoma argia ta iluntasuna bezelakoak diralako; argia emen ba dago iluntasunak alde egin beaña daukalako.



R. E. K. K.

Kristau ikasbidea irakasten

8. KRISTAU IKASBIDEA IRAKASTEN

Nere izenean onelako aur txikia artzen dunak
neu artzen nau. *(Math. 28, 5.)*

URTE osoan itxasoz itxaso ibilirik, azkenean Indi'ko buru dan Goa'ra eldu ziran. Paulo Deunak bezela, Xabier'ek ere bereala asi zun bere lana. Aita «Ona» guziak deitzen zioten, eriko gaixo elbarituak eta espetxeakoak (kartzelakoak) ta beartsu guziak ikustatzen zitulako; baño, batez ere, umetxoen kontu ta ajola berea zala zeritzayon, eta aurak len bait len bide zuzenera sartu zitezela nai zuen.

Txilina joaz, karikan eta ardandegi bazteretan zeuden giza semeak biltzen zitun, eta Ama Birjiñaren Eleiza'ra joateko zezakien, eleiz abestiak ikastera.


Egun gutxi baru onbideratu zan eri ura. Toki guzietan, bai aberats bai lander etxeetan, bai ta mendi, zelai ta basetxeetan ere, etzan beste gauzarik entzuten egun ayetan gure Xabier'ek irakatsitako abestiak baizik.

Umetxoak etxetara joaten ziranean euren guraso ta mofoi guzien aurrean eliz abesti abek aspertu gabe abesten zituzten, eta bereala beren aita-amak Kristoren erakuskinak artu eta oitura zikiñak alde batera utzi zituzten.

Etzan au bakarik. Aur txiki abek batere bildur gabe Jaungoiko gezuñezkoak goiberatu ta ostikopean zatitzen zituzten; gaixoetara jun eta Xabier'en gurutzarekin ari-garizko mirariak egin ere bai osasuna askoei emanaz.

Orelako emaitzak (frutuak) Xabier'en lanak zekazkitela Portugal'eko Efegeak eta Goa'ko Gotzaiak ikusi zutenean, Kristau Ikasbidea ikasteko Ikastetxeak jaso eragin zituzten.

Ikastetxera semeren bat biali gabe uzten zuten gurasoak, sinistegabekotzat euki oi ziran.



Parabatañak Jaunaganatzen

9. PARABATAÑAK JAUNAGANATZEN

Bere eskuak gaixoen buru gañean ipiñiaz gaitz guztiak sendatzen zitun. *(Luc. 4, 40)*

URALDI biziak igaro ziranean gure Prantzisko Deuna Komorin'go ertze mutuñetara abiatu zan. Toki ontan pitxizale parabatañak bizi ziran, ta danak ia ogei mila izango ziran. Zortzi urtez lenago batzuek ugutza (batayoa) artu añen, etzegon oraindik aien ardura zeuken apaizik. Xabier'ek apaiz aitaren ardura artu zuen. Ez jakiñai irakasten eta gezuñezko Jainkoak puñukatzen eñiz eñi zijoan aspertu gabe. Parabatañen alde z gogoz begiratzen zun; etsai gogofak zeuzkaten eta... Portugal'dar zeken zikoitzak parabatañei beren aberastasunak kendu nai zizkien batzuetan, besteetan beñiz uñeko eñien erasoaldi gogofak izan oi zituzten.

Mirari añigafiak egiten zitualako oso ezaguna zan Xabier. Aurgiteko lañi zegon bein batean emakume gaxo bat; Jainko gezuñezkoak sor goñak izan eta, etzioten entzuten; orduan gure Xabier'eri deitu zion; onek lenbizi batayatu egin zun, eta gero otoiz egiñaz, bereala parabatar gaixoa sendatu zan.

Konbutere'n ama bati bere seme txikia putzu batera erori ta ito egin zitzayon. Eldu zan eñukañia negañez Xabier'engana bere semetxo iñla eskuetan zuela. Esan zion Prantzizko'k jaso zitzala begiak gora Jaungoiko egiazkoagana. Otoi egiñik, onetsi zun ildakoa ta bertantxe piztu zan. Ordutik auñera alderdi guzietatik etortzen ziran beren gaixo ta elbañiakin parabatar ayek gure Deunagana.

Bi urte bakafik parabatañen artean Xabier Deunak igaro zitun. Eta ala ere ango kristauak, sinismena kentzeko egiñalak egiñañen protestante eta beste gizatxar askok, beti zutik eta beti zintzo gure Eliz Amarekin gelditu ziran.



Jainko gezufezkoen aurka

10. JAINKO GEZUÑEZKOEN AURKA


Berak ifxuak dira eta itxu-añeko. (*Math. 15, 14.*)

PARABATAÑAK pozik eta gogoz beren Aitari entzuten zioten; baño ez Jainko gezuñezkoen apaiz parabatañak. Auek Xabier'ekin etzuten ezer nai. Xabier'ek esan oi-zuen: «Ludi guziko giza-seme okeñenak dira; beti maltzuñak eta egirik ez dute iñoiz esango». Askotan esaten didate: «Zuk guk baño geiago dakizula beti aitortzen dizugu; egiazko Jaungoiko bat bakaña dala ere badakigu, baño nola utzi gure Jaungoiko gezuñezkoak, auek gure janari ta ogasun-bide ba dira?»

Apaiz gaizto aiek emaitz asko ezkeintzen dizkidate beren sinismen gezuñezkoak agirira atera ez ditzadan; baño nik gezur oiek danen añean agertzen ditut.

Brama'tar abek ez balira, emengo guziak Jaunagana-tuko lirake. Beñeun baño bramatar geiago baziran beren Eliz batean. Galdetu nien nik: «Zer bear da zoriona irabazteko?» eta aiek erantzun zuten: «Oñetarako bi gauz dirala beañekuak, esan ziguten gure jainkuak: beirik ez iñ eta bramatar apaizai emaitz (eñegalo) asko egin». Ta ori beiak jainkotzat dauzkatelako. Etsai gaiztoak eñukafi aien artean alako indaña zeukalako naigabeturik, nik ots aundiagoa egiñaz «Kredo» esaten nuen. Zerua ta sulezea (infernua) zer diran erakutsi nien eta nortzuk zerura ta nortzuk betiko sugañetara juan bearko duten ere bai. Auek entzun da, guziak aitortzen zuten Kristoren legea dala egiazko legea; eta agindurik zuzen eta egokienak gure Jaungoikoarenak dirala.

Orduan nik esaten nien: «Zuek kristau egin bear zerate». Baña bildurturik erantzuten zuten: «Guk alako aldaketa egiten badegu, zer esango dute beste guziak? eta nundik aterako ditugu jan edanetarako bear ditugunak? Sabela ase naiak Jaungoikoagandik atzeratzen ditu.



Kristau egiten

11. KRISTAU EGITEN

Sinistu eta ugutza (bataioa) artzen duna gaizkatuko da (salbatuko da), baño zinisten ez duna sugafetara juango da. (*Marc. 16, 16*).

BRAMATAÑAK Jainkoaren adiskidetza alde batera uzten zuten, baño ex Karea eta Trabankor'etañak; añantzale abek beti Xabier'eri bataio eske zebiltzen. Bertako Apaiz on batek Karea'tañak bataiatzen zitun bitartean gure Deuna Trabankor aldera joan zan.

Emen egin zioten abegia eta añera oso zoragafia izandu zan.

Begira zer egiten zun eñi ayetan. Eñira eldu orduko, bildu egiten zitun gizaseme guztiak aundi ta txiki, emakume ta gizonezko danak, ota ots egiñaz otoitzak esaten zituzten: «Gurutze santuaren...», «Kredoa», «Aita gurea...», «Ni pekataria...», «Agur Maria...», Jaungoikoaren Legeko aginduak, t. a. Buruan ondo sarturik gelditu zitezen, bi, iru ta geiago bider esaten zituzten. Jaunaren Legeko agindu bat esan eta azaldutakoan galdetzen zun Aita Xabier'ek: «Beteko al dezute Jaunaren Legeko agindu au?». «Bai, Aita, beteko degu Jaunaren agindu au», erantzuten zuten, «Esan bada», «Aita gure» bat, betetzeko bear degun indaña ta laguntasuna Jaunagandik iritxi ditzagun, eta ots egiñaz guztiak batera «Aita gurea» esaten zuten... Beste egi bat azaldu, eta beñiz galdetzen zun:... «Sinistuko dezute egi au? — Bai, Aita, sinistuko degu. Esan dezagun bada: «Aita gurea»...

Jakin beañeko egiak eta otoitzak onela ikasitakoan, batayoa ematen ziyen. Amar miña baño geiago Trabankor'etar ilabete baten bañuan bakañik bateatu zitun. Eta. ¡Eun miña kristau urte batean egiteko usteak zeuzkan!

Ez da batere añitzekoa berak eskutiz batean diona: «Besoa guztiz auldurik eta jasotzeko ere gauza ez detala utzi dit ainbeste lagun barayatzen egin dedan lanak».



Jokalaria irabazten

12. JOKALARIA IRABAZTEN

Garbai izan edo damutzen ez bazerate, guziok ilko zerate. *(Luc. 13, 3.)*

GAIZKILE pekatariak Jaunari ematen dizkieten naigabeak ordaintzearen bere burua nekepean uñatu egin oi zuan askotan gure Xabier Aitak. Onela Jaunaren onespena bereganatzen zuen.

Trabankor'etik Goa'ra zijoala bere biotza asmo beroak artzen ari zan. An uñuti dauden animak ere Jainkoarenak dira bada, eta Berari biurtu bear zaizkio! Goazen ara, gaixo aiek Jaunaganatzera. Bidean berekin zijoan gudari bat, zitun ondasun guziak jokuan galdu ta, birau nazkagarriak esaten asi zan. Badakizute zer egin zun gure Deunak jokalari ta biraulari gizagajo ura Jaungoikoarentzat irabazteko? Eñietarik batere egin gabe, beñiz jokatzeko dirua eman zion. Jokatu zun eta galdutakoak osterira irabazi egin zitun. Aita ona orduan, gizona biotzez bereganatuta ikusirik, ixil ixilik, ontzia legoñera eldu zanean, Eliz batera juan zan gizagajo ura bere ondoren zuala. Aitortu (confesau) zizkion onek bere oker eta pekatu guztiak; baño aita Xabier'ek oben-neke edo penitentzi oso txikia ezarri zion.

Gudariak, bere otoitza bukatu zuanean, begiratu zun nun ete zegon Aita; baño etzun ikusi. Abiatu zan bilatzen eta, nun arkitu zula uste dezute? Basora irten eta sasi tartean zegon gure Deuna bere gorputza astingai gogoréz uñatzen eta odolitzen. ¡Penitentzi txikia eman zion gudariari eta, pekatuen ordaintzarako bere gorputza odolitzen ari zan!

¡Onela biurtzen zituan pekatariengana Jaunaren begi eñukitsuak!



Gau osoak otoitz egiten

13. GAU OSOAK OTOITZ EGITEN

Otoitz egin, zirikaldietan (tentazioan) erori ez zaitezten. *(Math. 26, 41).*

JAUGOIKOAREN aurrean zebilen beti gure Prantzizko Xabier Deuna; eta bere biotza Jaunaren eskuan zeukan. «Geiago, Jauna, oraindik geiago, zion, Jaugoikoak naigaberen bat bialtzen zionean. Baño atsegiñez betetzen zuanean: «Naikoa da, Jauna, naikoa da», esaten zion.

Askotan gaberdian jaikita, goizeraño ta goizean goiz otoitz egiten ikusi zuten gizonak. Ekaitz gogoren bat sortzen zitzairenean eta itxaxoaren burunda ikaragañiak aditzen zituztenean, «Otoitz egiten dago gure Deuna, ez da bildurik», zioten.

Meliapor'en Tomas Deunaren ilobi ondoan lau ilabete gelditu zan Xabier. Beste guziak lo zoñoan daude, baño Prantzisko ixil ixilik, geldi geldi, Eleizara. Oraindik arutz arutzago joan beña zeukan eta toki ajetan bere itzaldi arazoak ondo irten zitezten, Jaunaren laguntza bereganatu nai zun.

Meliapor'tik Malaka'ra bidean itxas ondoan zegon etxetxo zar batean ara nun gelditu zan. Bere adiskideak zer gaubean egiten zun jakin naiaz, ate zuloatik begira jañi ziran. ¡Ura ikuskizun begiragaña! Gela txiki artan gurutze bat maitxoaren gañean, beste bat estalian, eta bere otoitzetako idaztitxo. Ondoan bere oia eta burukotzat aña gogor bat.

Xabier bera gurutze aurrean belaunikatuta an ia gau guzian egon zan, eskuak zerura jasoaz Jesukristo gogoratzen, eta Berarekin samur samur itz egiten.

Onela Prantzizko belgundetarako (mixiotarako) gertutzen zan, eta ofegatik Jaungoikoak ain ugari eta ederki saritzen zitun bere arazo ta lan guziak.



Begiratu ta ikasi

14. BEGIRATU TA IKASI

Nere bizitza Jesukristo da; ta iltzea, irabazia.
(*Phil. 1, 21.*)

MALAKA'TIK Xabier urutirago Anboino'ko ugarteruntz abiatu zan. Zazpi eritan ugutza (batayoa) artu zuten, baña apaizik ez eta Maomatañak zeuzkaten beren gain. Oregatik ardi izu ikaratiak bezela bizi ziran.

Ikustatu zitun kristau aiek gure Deunak eta beren sinismena bizkortu eta indartu ere bai.

Mutil gazte bat, Atibe'tar Imanol bere lagunik zintzo eta kutunena zan. Beti Deunaren lagun zebilen batetik bestera lanak egiten, eta erakutsiak entzun eta ikasten. Biotz bañu bañuraño sartu zituan gazte onek Xabier Deunaren esanak.

Amabi urtez geroago Maomatañak inguratu zituzten alde aiek, eta kristauak beren sinismena ukatuzera biurtu nai izan zituzten: «Zuen sinismena utzi zazute, eta atozte gure menpera», esaten zuten. Baña kristau aiek, Atibe buru zutela, gogoñ egin izan zieten Maomatañai: «Ez, bizi geran arte ez diagu ukatuko kristauen sinismena», erantzun oi zuten.

Imanol gaztea, Xabier'en lagun izana, ondatu naiean ibili ziran Maomatar gizatxar aiek, baño alpeñik. Gazteak erasoaldi guziaz gero eta gogoñago egiñaz erantzuten zien.

Andik urte batzuetara Imanol oni galdetu zion Aita bateg: «Ainbeste zirikaldi ta erasoaldi tartean nork ain kemen sutsua ematen zizun? Eta Imanol'ek: «Anboino basoko gizon erukañi gajo bat naiz ni; nik nere Aita Prantzisko'k erakutsi zidan gauz bat beti gogoan daukat, eta onexek bizkortu izan nau: egi au da: Kristogatik iltzea, gauz eder zoragaña dala».



Itxasoan galdu zan Gurutza

15. ITXASOAN GALDU ZAN GURUTZA

Jesus gurutziltzatuaren bila zabilzate? (*Marc. 16, 5*).

EGUN batean Anboino'tik Zeran ugarite aundira, befi ona an zabalzeko asmoz itxasontzi batean zijoan.

Ekaitz gogor bat jeiki zan itxas bañenean zeudenean, eta itxas-gizonak dana galduta zegola ta iñor bizirik aterako etzala esaten asi ziran. Ordun Xabier'ek Jaungoikoari bere semearen nekaldi ta eriotzaren bidez gizon eñukañi aiek gaitz artatiz atera ditzala, eskatzen dio, ta lepotik zintzilika beti zeraman gurutza, bere eskuetan artu eta itxasoari ematen dio. Eta otoitza egiten asi zanean, lokañia eten ta itxas ondora joan zan gurutz edermaite ura.

Xabier biotzmindua gelditu zan ura galduaz. Pixkaka pixkaka, ekaitza gutxitu zan, eta itxasontzia ogeita lau ordu geroago kai batean sartu zan.

Eldu ta gero, itxas ondoan zebilen gure Deuna Rodriguez'tar Pausto guda-mutilarekin. Pixkat bakañik auferatu ziranean, itxasotik kañamaño bat irtetzen zala ikusi zuten; begiratzen dute nola berengana datoñen, auñeko anketan gurutza dakañela. Xabier auferatzen da pixka bat; belaunikatzen da, kentzen dio gurutza eta itxasoan beñiz sartzen da kañamañoa Jaunaren agindua egin da.

Ordu erdi bat egon ziran Xabier eta bere laguna belaunikatuta Jaungoikoari eskeñak ematen; eta otoitza egin da gero jeiki eta Tamilau efi txikira joan ziran. Zortzi egun emen egon ziran Jesus gurutziltzatuaren legea irakasten; baño ango eñitañak biotzak gogortuta zeuzkatela eta, bide onera etoñi nai etzutela ikusi zunean, andik irten eta beste aldera zuzendu zan.



Odolzaleen artean

16. ODOLZALEEN ARTEAN

Jauna, lagundu zaiguzu, ilko gera bestela eta.
(*Math. 8, 25.*)

ZERAN deritzayon ugartetik Nusalaut'era igaro zan. Ugarte ontan etsayen aragia jaten zuten Alpurez'ak bizi ziran. Egun batzuk igaro zitun Xabier'ek gizon ayen artean onbidera ekartzeko egiñalak egiñaz. Baño ezer ezin iritxi zula ikusi zunean, Rodriguez'tar Paustu'rekin Anboino'ra itzuli zan. Gazte bat bakarik onbideratu zun Xabier'ek Nusalau'en, eta gazte oneri ugutza eman zionean gure Deunak esan zion: «Jaungoikoaren laguntzan zure uste guzia ipiñi zazu, eta on-bidean beti ibili zaite; ofela egiten badezu, Jesusen izen agurgafia gozo gozoki esaten eriotzak artuko zaitu».

Aldi batean, Xabier, gudaria balitz bezela maomatafen aurka ibili zan. Imau'ko gaztelua artzera zijoaztela, ari zofoztz batek zauritu zun, eta zaurituta antxen erori zan. An zegoen erorita bere Aita Loyola'tar Inaki Deuna Iruñan egon zan bezela, eta bera bezela indar aundiagoz jeikitze-ko. Rodriguez bere laguna berealaxe bere ondora dijoa; eta itz abek esaten ari zala arkitzen du: «Jesus, Jesus, Jesus».

Xabier'en eriotza gertatu zanetik befogei ta amar urte geroago Olanda'tar ostelari edo protestanteak Anboino ugarteko nagusi egin ziran, eta ango kristau gaixoai beren sinismen oker gaiztoa erakutsi zieten.

Ordun bete zan Xabier'ek auzez esana. Rodriguez'tar Paustu Kristoren egiazko legean beti bizi nai izan zulako, erbesteratu egin zuten: eta Pilipinas'eko efi batean, Jesus'en izen Deuna zun eñian poz eta atsegiñez beterik il zan.



Ternate'ko itxas ertza

17. TERNATE'KO ITXAS ERTZA

Nork Kristo'ren maitetasunetik aldenduko gaitu? *(Rom. 8, 35).*

ANBOINO'TIK Xabier Deuna Ternate'ko ugartera juañ zan; Ternate salerosketako lanetan eñi auñen auñenetakoa zan, portugaldarñen gaztelu, ta maomatar eñege bildugarñi baten bizitoki. An egon zan iru iñlabete ayetan lan asko egin zun kristau ziran eta etziranen artean; eta eñege ber beraren ama ere beste aundiki batzuekin bataiatu zun.

Xabier Aitak «Moro» deritzayon ugartera juañ nai aundia zeukan. Bere lagunak esan zioten ango gizonak bertara zijoazten guziak il egin oi zituztela. Amabi urtez lenago bataioa artutakoak ziran; baño pixkat geroago beren Apaiz jauna il zuten. Beste apaiz batek gudari batzuk laguntzat arturik menderatu zitun, baño orduetik auñera iñork etzun ara juañ nai.

Alpeñizkoak izan ziran bere lagunen negarñak eta arutz ez juateko esandako itzak; alpeñik esaten zioten berarekin eramateko sendagai batzuk. «Sendagairik onena Jaungoikoagan nere uste guztia ipintzea da», erantzuten zien.

Azkenean ofela ezer irixten etzutelako, beste gauz bat asmatu zuten bere lagunak. Joan ziran Ternate'ko Agintariengana, eta esan zioten Xabier'eri itxasontzi txiki bat bakarñik ere ez uzteko.

Ordun Xabier'ek esan zun: «Jaungoikoaren naia eza-gutu arñen itxasontzi baten bat ematen ez baldin badidazute; egiz esaten dizutet: bide ori igeriz egingo det».

Erantzun onek danak ixilik utzi zitun; eta itxasontzi bat lagun kementsu batzuekin eman zioten.



R. E. Kipling

«Moro» ugarteko lanbideak

18. «MORO» UGARTEKO LANBIDEAK

Jesus'ekin batean oñaze-naigabeak eramaten ba ditugu, berarekin eñege izango gera.

(2 Tim. 2, 12.)

ARTZAI on bat bezela, Xabier, «Moro» ugarteruntz irten zan. Gizon zakar aiek, bilduñez beteta gelditu izan ba ziran ere, laister Xabier'en ontasuna ikusi zuten; berarekin adiskidetu, ta seme onak bere aitarekin bezela, itz egiten zuten eta ibiltzen ziran.

Eñi ontako gizonak ezer etzekiten eta oso gaiztoak ziran. Beren jantzi guztia, atats puska bat zan; beren jana, zuaitz baten muin edo ezadea ugol (añoz) pixka batekin; beren gaxotasunarentzat sendakai bat ere etzuten ezagutzen. Itxaseñtz aietara itzasontziak ezin ziran uñeratu; eta gizonak leoñeratzen ba ziran, eñi batera eldu baño len mendi luzeak eta baso ilunak igaro beañ zituzten; gañera bidean añkitzen ziran Tabarotañen maltzurkeriak oso bildurgañiak ziran, kristauen etsai aundiak bai ziran basati ayek.

Emen bada Xabier Deunak bere bizitz guztiko egun edeñenak igaro zitun, berak zionez; emen, bakañik, gizonen laguntza gabe, bere biotza Jesus'enaren gañetan kiskaltzen zeukala, Jaunari esaten zion: «Asko da, asko da». Geyegizkoa da, Jauna, geyegizkoa da Zugandik datorkidan poz eta atsegiña!

Iru ilabete igaro-ta, Xabier beñiz Ternate'n zegon eñege ber berari beñi-ona irakasten. Maoma'ri ajola gutxi egiten zion eñegeak, egia esateko; baño bere etxean zitun eun emakumeak geiago zezaketen, Jaungoikoaren legeak baño; eta oñela pixkat geroago, kristauen etsai gogoñenetakoa izandu zan.

Beñogei ta amar urte geroago, Olandatañ ostelariak (protestanteak) maomatañai laguntzera etoñi ziran; apaizak andik aldendu eta kristau asko il zituzten. Eta bizitza galdu etzuten kristauen semeak, lasteñ aztu kristau-siñismena, ta lenagoko sinistegabetasunera ta biuñikerietara itzuli ziran.



R. E. Kipling

Etsayen ondameña

19. ETSAYEN ONDAMENA

Añoak aienatu eta beren bakaulkietatik indar-
tsuak beeratu ditu. (Luc. 1, 51-52).

TERNATE'TIK etofita, Malaka'n zegon gure Deuna. Atxin' eko Maomataf itxas-lapuñak, Malaka efiaren etsai gogofak, gabeko ilunpean efi polit ura artu nai izan zuten; baño, Malaka'ko zaitzaileei eskeñak, lafi ta ariñ andik iges egin ber izan zuten.

Itxas-lapur aiei zigofaldi aundi bat eman nai zieten danak, baño batez ere Xabier'ek; ofegatik itxasontzi batzuek gertu ta gero, itxasora irten ziran, etsaiakin an gogof ekiteko. Etzioten Xabier'i utzi itxasora joaten, eta ala Malaka'n gelditu zan.

Danak uste zuten, egun batzuek igaro ta gero bereala garailari ta aintzaz (gloriaz) beteta etxeratuko ziralta; baño irten ziranetik seigafen astea bukatzera zijoan, eta befi bat bakañik ore oraindik artu etzalako efi guztia bildur turik, Xabier'en aufka asafatzen asi zan.

Igande batean, itzaldia egiten zegola, ixiltzen da; ta bere esku ta begiak donokiruntz (zerurontz) jasota bere itzaldiari jafaitzen dio osanaz: «Zuen artean arkitzen dira bai beren senafak ilak diralako ustez, sofginkeriak egiten dituzten emakume batzuek. Kristau txafak! Zergatik Jaungoikoaren eskuetan ez dezute zuen uste guztia ipintzen? Eskeñak Jaungoikoari! oraintxe bere etsaiak menperatu dituzte eta au egia dala azkar jakingoz dezute».

Aditzale guztiak arituta gelditu ziran, inor oraindik itzuli baño len Xabier'ek befi ura zekielako. Ba zekien bai, eta danak azkar jakin zuten, portugaltafen itxasontziak ageftzen asi ziranean, eta kaira, maometafai afapatuko ondasun azkoz aberasturik, eldu ziranean.

Xabier'ek esandako egun, ordu ta garai artan bertan, portugaldaf ospetsuak beren etsaiak menperatu zituztela aguro jakin zuten danak; eta Xabier'ek ori gertatzen ari zanean, ikuspen afigafi batez ezagutu zula.



Japon'da fak irakasten

20. JAPON'DAÑAK IRAKASTEN

Judutafak mirariak eskatzen dituzte; Gerkañak jakintza; guk ordea Kisto gurutziltzatua erakusten degu. (1. Cor. 1, 22-23.)

MALAKA'N zegonean, Jaungoikoak Japon'era deitu zun. Kagoxima'ko japonsa Anxero'k, gizon bat txaki zauritu zulako, portugaldaren itxasontzi batean, Txina'ra iges egin zun. Bere gaztetasuneko oker batzuen aña bizi bizirik zeukan bere biotzean. Alpeñizkoa izandu zan Budapaizengana joatea; abek bere gogoaren gentza (pakea) ezin zioten biurtu eta, ezin añ ura ito.

Egun batean portugaldak beren izketan Xabier'en izena ta egiñak aipatzen ari zirala, Anxero'k bera ezagutu nai zula esan zun; ta Malaka'n zegola jakin zunean, ara joan zan berealaxe. Baño ara eldu zanean, Xabier an etzegon, eta Anxero, naigabez beteta, beñiz itzuli zan iften zan lekura. Bide ontan ekaitz ilun eta gogoñ bat jaiki zan; eta ekaitza gogoñegia zala, ta bere biotza Jaungoikoarengana jasota, bere gogo bizitzarentzat laguntza eskatu zion.

Eskatzen zuna iritxi zunean, Malaka'ra beñiz joan ta an, azkenean, Xabier Deuna arkitu zun, ta Xabier'ekin batera egizko siñispena ta bere biotzaren atsedena ere bai.

Gogoangaria da benetan japonsarentzat 1549'garneko Miren Deunaren Jasokunde eguna; egun onetan bada Xabier Deunak Japon luña jo zuan.

Ango eñgea asko poztu zan, Deuna eldu zala jakin zunean; eta Jaungoikoaren legea zabaltzako baimena pozez eman zion. Anxero'ren laguntzaz, kristautasunezko azalpen batzuk idatzi zitun japonsaren izkeran; eta egunero-egunero Eliza baten exerita, an biltzen ziran eñtaren añean, irakuñtzen zitun azalpen aiek. Entzule aietatik, eun japonsa ugutzatu zitun Xabier Deunak; eta berealaxe bere biotza pozez beteta zeukala, Europa'ra eskutitz edeñ bat idatzi zun esanaz: «Alde abetan ikusi ditudan ozte guztien onenak japonsak dira bene-benetan; eta nik uste det siñispenik ez dutenen añtean, ez dala iñor obeagorik arkituko».



R. C. Kipling

Begira zazute argia

21. BEGIRA ZAZUTE ARGIA

Egizko bidean dabilena, argiraldera dijoa.

(Joan. 3, 21.)

KAGOSIMA'n beste efi askotan bezela, Buda-apaizak le-kaidetxe (ofela deitu nai ba diogu) aundi bat zeukaten. Xabier arutz joaten zan batzutan, ango nagusi Nintxit'ek askotan deitzen zun eta.

Budataf aien aufen-aufeneko galdera, au izaten zan: «Gizon bateri burua moztutzen badiote, zer gelditzen zaio?» Ikusi zazute zer erantzuten zuten: «Ezer ez; soñakin (gorputzakin) batian gogoa (anima) iltzen da ta». Xabier'en irakaskintza ordea etzan ofelakoa: «Soña usteltzen danean, gogoa ez da iltzen; baizik beti biziko da; gizon onarena zeruan, eta gaiztoarena sugafetan (inpernuan) edo gaiztokian.

Gauz abek entzun da gero, Ninxit'ek beti egunez eta gabez egi ori zeukan begi auran: «Nere gogoa ezilkoña dala, ez dala inoiz ilko».

Egun batean Xabier'ek galdetzen dio: «Esan zaidazu: zer naiago zenuke zuk, gaztea ala zaña izan?». — «Nik naiago nuke, erantzun zion Ninxit'ek, gaztea izan; gazte-tasunean bakoitzak nai duna egin dezake ta». — Baño itxasoan dabiltzanak, esan zion Xabier'ek eta kaitik aldentzen diranak beste kaira irixteko zer naiago izaten dute, itxas barenean, ekaitz gogor artean beti ibili, ala kaira lenbailen eldu?» — Badakit zer nai didazun, erantzun zion Ninxit'ek biotz-ilunduta; bai badakit; baño nik ez dakit nora noan, ez ta ze kaira iritxi bear detan ere. Buda'gatik etzait ajolik neri; nik egizko Jaungoikoari bakar-bakafik otoitz egiten diot».

Baño lotsak lotuta zeukan gizon gizajo ura, eta ge-zuñezko gauzak utzi gabe, ogei ta sei urtetan oraindik egon zan ugutza ta Kristoren legea artu gabe. Azkenean, iltzera zijoanean, apaiz on bateri deitu zion; baño berandu eldu zan apaiz jauna; eta Ninxit ordu aftarako ilda zegon. Gizajoa! Xabier'en esanak bete izan bazenitu, zure eriotza etzan ain negafafia izango!



Meako aldera

22. MEAKO ALDERA

Zure gentzarakoak zure egun ontan entzungo
ba zenituke...! *(Luc. 19, 42).*

BUDA-APAIZEN gofoto biziak Xabier Kagosima'tik irten erazi zuten. Joan zan bada urutirago eta Irado'n kristaubazkun bat eratu zun. Akata'n eta lamagutxi'n Buda-apaizen okeftasunaren aurkez jañi zan, baita beren kaltez gogoñ egin ere. Sakai'en bere etxean gorde zun gizona onbideratu ta gero, Meako'rako bidea artu zun.

Eragea, Buda-apaizen nagusia, eta Japongo jakintsu aundienak an arkituko zitula danak dasakioten; an, gizon jakintsu aiekin burukaldi sutsua izango zula, eta Jaunaren legea garaile aterako zala; ala uste zutela. Eregiak baimena emango zion noski, eta ordun Japon guztia Jesusganatuko zan bene-benetan.

Baño bere ametsak ametsetan gelditu ziran. Eri guztia ta batez ere Meako, guda gogofean nastuta zebilen. Ikastetxe nagusiak atea itxi zioten; eregeari nola baimena eskatu, bere almen guztia kendu ba zioten, eta kendu ziotenak iges egin ba zuten? Eritarak beñiz Prantziskoren aurrean pañ egiten zuten eta afika andik bialdu nai izan zuten.

Gauzak ain gaizki agiri ziralako, Xabier amaika egun bakañik egon zan Meako'n. Berealaxe andik irten zan, eta bere itzuleran eskefgabeko efiari beti begiratzen zijoan eta biotz-biotzetik Jaungoikoari otoitz bero ta samur bat zuzendu zion, ijapondafai begiak iriki ta onbideratu zitzala, añen!

Eta poliki-poliki inun gelditu gabe, ego-alderatu zan gure Jaunaren bidaldia eta lamagutxi'ko eregearengana joan zan, au beste erege guztiak baño aundiago zalako.



Bungo'ko Jaunarenean

23. BUNGO'KO JAUNARENEAN

Nere izena zabaldu beař du onek eřege eta beste gizon ařtean. (Act. 9, 15.)

IAMAGUTXI'KO eřegeak, Jaungoikoaren legea zabaltzeko baimena pozez eman zion Xabier'eri, eta, eřegearentzat opari batzuek ařtu tu gero, berealaxe ara joan zan gure Deuna. Lenengo izketa gogořak Buda-apaiz jakintsuakin euki zitun. Lan gutxi egin beař izan zun beren gezur guztiak ezereztutzeko.


Ořegatik eři guztia aiekin kezkatuta zebilen, eta egun gutxi bařu aundi asko eta ia eři guztia onbideratu zan.

Bungo'ko eřegearen ondoan ziran portugaldar batzuek Xabier'en gauzak edestu zizkioten; eta berak ere ezagutu nai zula erantzun zien. Xabier laster ara joateko gertutu zan; portugaldarrok garaile bateri bezela, eřegearen etxerario lagundu zioten, eta an abegi zoragarria egin zioten bene benetan. Beste tokitan bezela, emen ere bai, bere itz beroegizkoz, laster eta eřez Buda-apaizak menperatu zitun; Bungo'koak bide onera itzultzen asi ziranean, Prantziskok Indi'etara joan beař izan zun, ango beař-beařenetakako lanak deitzen zioten eta.

Bera urutian zebilela, Kristau guztiak zaitu ta lagunduko zitula eskeņi zion eřegeak; eta eskeņi ez ezik, eskeintza bete eta beste eři askotan Jaungoikoaren legea sařtzeko bidea eratu ere egin zun. Ber-berak, Buda'ren irakaskizunetan gogoaren pakea bilatu eziņik, eta zeruko deia azkenean jařaituaz, oitura gaiztoak utzi ta Kristoren bide zuzena ařtu zun. Bere menpekoetatik *irurogeita amar mila* bataiatu ziran; eta ordun Japon'go kristauak *seireun mila* raņo eldu ziran. Beřeun urte iraun zun izugarizko erasoaldi (persecusio) amoařtuak etzuan izan ango kristautasun zintzo ura ondatzeko indarrik.

Egun edeřak elduko dira noizbait; eta egun oyetan eři guztiak ikasbide zoriontsu oni jařaituko dio; ordun bizitz beři bat asiko da japonsařentzat, egiazko aunditasunaren bizitza!

¡Ala bedi len bait len!



Eriotza

24. ERIOTZA

Zorionekoak Jaunaren adiskidetasunean il diran
ildakoak. *(Apoc. 14, 13).*

”Zuk dakarkiguzun sinismen ori egizkoa baldin bada, zñola Txina'ko jakintsuak ez dute ezagutzen? Japon'da'ak beti galdetzen ziotena au izaten zan. Txina'tik jakintza ta sinismena ta beste gauz guziak artu zituzten eta, o'regatik japonda'fen artean zerbait egin bear baldin bazan, Txina'n lenago egin bear zan. Txina'ra sartzen ziran a'otz guztientzat o'ñaze izugafiak gertuta zeuden. Baño Sanzian'go ugarteruntz juan zan gure Deuna andik Kanton'era lenengo, ta gero Txina guztira sartzeko asmoz.

Kanton'go otz ikaraga'iak eta gose izugafiak eta espexe (kartzela) i'ñunak Xabier'en biotzarentzat zer ziran?

Bere lagun guztietatik eriotzako ordu arte Txinatar bat bakafik, izenez Anton, bere ondoan gelditu zan. Gau i'ñun batean Kanton'era'ño eramango zula esan zion sale-rosle ura etzan agiri.


Itxoiten zegola gaixotu zan eta bere inda'ak gutxitzen asi ziran. Antxe gelditu bear izan zun lur ga'ñean etzanda, Jaunaren ardurapean bere uste guzia ipi'ni eta Jaun bera-ekin eta Ama guztiz garbi maitearekin gozo gozo euskeraz itz egi'naz. ¡Bai, euskeraz ikasi zun itz egiten, eta euskeraz otoitz egi'naz il zan!

Ostiral a'atsaldean izmena galdu zun, baño bere begiak Jesus gurutziltzatuaren irudiagandik etzitun aldatu bizitz aunetik zeruratu arte. Bere ondoan zegon Txinatar gixaxoak, Xabier'en azkeneko ordua eldu zala ezagutu zunean, argizari kandela bat eskuetan ipi'ni zion, eta argizaria esku batean eta Jesus'en irudia bestean zeukala, 1552'ko Lotazilaren 3'ean, be'rogei ta sei urte zituelarik, lo gozo batean sartuko balitz bezela, il zan.

Goa'n, «Jesus Ona» ren Elizan, zila'ezko gurutz polit bat dago; antxe arkitzan da India'ko gauzik ede'fena: Xabier'tar Prantzisko Deunaren gorputza.

Xabier'en i'łobi a'fñean, otoitz egitera alde guzietako bidezkarriak joaten dira.

IDAZTITXO AU ARTZEN DUTENAK XABIER
DEUNAGANDIK NAI DUTENA IRIXTEKO TA
BERA GORATZEKO ERA EGOKI BAT EMEN
BERTAN ARKITU DEZATEN, **ESKER EDO**
GRAZIAREN BEDERATZIUÑENA, TA ¡GORA
PRANZISKO XABIER! ABESTI-ITZA ATERA-
===== **TZEN DITUGU ONDOREN** =====



ESKER EDO GRAZIAREN BEDERATZIUĒNA

Jaungoikoagandik nai dan esker edo grazi irixteko Xabier Deunari zuzendu oi zayon BederatziuĒna egiteko egunik egokienak (Martzu) Epailaren 4'gaĒenetik 12'gaĒenerakoak dira.

Onela egiĒ dezakezu:

Kurutze santuaren...

Jesukristo nere Jaun...

OTOITZA

¡Done guztiz maitagaĒi ta maitalaria! Zurekin batera auzpezturik agur egiten diot Jaungoiko aundiari. Pozturik eman zizkitzun ondasun aiĒ berarizkuakgatik eta orain zeruan dauzkatzun atsegiĒ zoragaĒiakgatik, eskeĒik beroenak egiten dizkiot Jaun berari; eta bizitz eta oriotz ona zure bitartez irixteko laguntasuna eskatzen diot; baĒa, batez ere, bederatziuĒen onetan iritxi nai detana. (*EgiĒ emen zere eskaera*) BaĒa eskatzen detana Jaungoikoaren gorarik aundienerako ez-pada, eman nere onik aundienerako izango dana.

Esan: Iru «Aita gure», iru «Agur Mari», ta amar «Gloria Patri».

Itzetan eta egiteetan aiĒ indar aundikoa izan zizaĒ In-dietako Apostolu ta anima-zale sutsua! Zure laguntz eske

etortzen diranai erakutsi oi dizkiezun efukitasunari, eta siniste gabekoai amar urtez Jaunaren itza agertzeko indaia eman zizun anima-zaletasun sutsuari begiratu ta, auzpezturik eskatzen dizugu: Jaunarekiñ bitarteko izan zaitezela, siniste gabekoak argitu, sinistausleak eta aldenduak Eliz Amaganatu, oker dabiltenak onbideratu ta zuzenak zuzenagotu ditezen. Eskatu Jaunari garbitokian daudenen alde; bai ta kristau arteko agintarien benetako pake ta alkartasunagatik ere. Indazu, Aita, lagun urkoa iñoiz okerbidera ez eramateko laguntasuna, onela itzez eta egitez Jaunak ipiñi nauen bidean zure antzeko izan da, zure lagun izan nadiñ betikotasun guzian. Ala bedi.

Bederatziurēneko egun bakoitzean irakurri ezazu «Bizitza»ren atal edo zatitxo bat.

Deunak egiñ eta sañi esan oi zuan

OTOITZA

Gauza guztien Egile, betiko Jaungoikoa! Oroitu zaite, Zeuk zere antzera egiñak dirala sinistegabeen eta pekatarien animak. Begira nola ari diran sulezea betetzen; eta etzaitez aztu zure seme Jesukristok anima oyek zeruratzearen ainbeste neke igaro ta gero, bere odol guzia ixuri zuala. Ez utzi sinismen gabekoai ta pekatariai zure Semea ta gure Jauna aintzakotzat ez artutzen; egizu, añen, anima on guztien eta zure Seme Deunaren emazte dan Eleizaren eskariak entzun da, utzirik euren sinismen eta jainko gezurēzko ta gaiztakeriak, Jesukristo ezagutu ta biotzez maitatu dezatela; bera da, bada, gure bizitz eta berbizitza, gure erosle ta gure askatasuna. Aintza Berari oraiñ eta beti.

Ÿ. Eskatu, Prantzisko Deuna, gure aldez.

R̃. Jesukristoren agintzen duin izan gaitezen

OTOITZA

Efi ta efi-agintariei zure izen deuna agertzeko Indietako Apostolu Prantzisko Deuna goi-eskeñez bete zendun Jaungoikoa! Egizu, zure aintzaren zabaltzale añaña ludian gurtutzen degunok geure zoriona irixteko zeruan bitarteko euki dezagula, Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Alaxe.





¡GORA PRANZISKO XABIER!

(La'egla' ren eresiaz.)

Gora dezagun guztiok
Pranzisko Xabier Deuna
Jainkoarentzat ainbat eñi
Irabazi zuena.
Gurutze bat eskuetan
Arturik, ibiltzen zan
Sinismena zabalduaz
Fedegaben artean.
Euskaldunak! Gora beti!
Gora Pranzisko Xabier!

Añtu zuen Inazio
Aitatzat zorionez,
Geroztik ez du Pranziskok
Jauna baizik bilatzen.
Nekerik aundienetan
Zebilen beti pozez
Bere biotza suturik
Jesus'en maitasunez.
Euskaldunak! Gora beti!
Gora Pranzisko Xabier!



Loyola'ko Inazio'n
Seme maite-maitena,
Jesus eta bere Amaren
Maitale gaitsuena,
Mundu beñiak zeruronz
Zuzendu zituena,
Gora Xabier mixiolari
Berdiñik ez duena.
Euskaldunak! Gora beti!
Gora Pranzisko Xabier!





A. M. D. G.